



UDALAK “ENERGIAREN BULEGOA” IREKI DU FAKTURAZIOARI ETA ENERGIA-KONTSUMOEI BURUZKO AHOLKULARITZA ESKAINTZEKO

Udalak, ekimen honekin, Alderdi Ederreko Pentsiodunen eta Erretiratuen Batzarrak joan den urteko otsailean egin zuen eskaera asetzen du. Zerbitzu hau herritar guztiei eskaintzen zaie, baina pertsona ahulenei bereziki, hala nola, pentsio txikiak dituzten adinekoei, argiaren faktura ulertzeko eta konpainia elektrikoekin edota argiaren fakturei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenei.

Fakturazio elektrikoari buruzko erreklamazio eta kontsultak bigarren lekuan daude, Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) azken bi urteetan bildutako datuen arabera. Hori dela eta, herritarrei dei egiten zaie, edozein zalantza izanez gero, bulego hori erabil dezaten. Bulego horretan, elektrizitatearen fakturazioaren eta etxean energia aurrezteko moduen inguruan aholkuak ematen dira.

Zerbitzua hasi zenetik, KIUBari argiaren fakturarekin lotutako kontsultak egin ondoren, bulego honetara bideratutako pertsonak dira. Erretiratuak batzuk, baina ez gehienak. Izan ere, konpainiek aurkezten dizkiguten eskaintza anitzek, aurrezteko eta ordaintzeko moduek, kontsumo handiko eta txikiko ordu-tarteek, etab. edonor nahastu dezakete.

Horregatik, Donostiako KIUBren bulegoetan, Mandasko Dukearen pasealekuan, 12, asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, hurrengo laguntza dago eskuragai:

- Argiaren fakturan sartutako kontzeptuak eta fakturazioaren azterketa ulertzea, bereziki kontratatutako potentziaren eta kontsumitutako potentziaren arteko aldea.



▶ Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa
Oficina Municipal de Información a la persona consumidora

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943483410 | udala_omic@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

- Aukeratu kontratu-mota egokiena: tarifa finkoa vs. gaueko tarifa
- Energia kontsumitzeko ohiturak hobetzea
- Zure etxebizitzako energia-gastua arrazionalizatzea eta aurreztea
- Udaleko gizarte-bonuaren eta gizarte-laguntzen (GLL eta BPA) baldintzak ezagutzea
- Erreklamazioak edo eskaerak aurkeztu energia banatzen duten enpresei (KIUBaren ohiko zerbitzuaren bidez)